



GJHak enpresen eta erakundeen kudeaketan txertatzeko markoa

Sustatzailea

Agenda 2030
Euskadiren konpromisoa

Euskadi, auzolana



Laguntzaileak

2030 Agenda
Foroa
Euskadi

Iniciativa
Guneak
Ekimena

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



Nazio Batuek proposatutako GJHen zerrenda ofizialak 17 helburu biltzen ditu guztira. Azkenaldian, hainbat ekimen daude 18. zenbakiko GJH txertatzea sustatzen dutenak, hainbat premisaren pean. Marko honek 18 GJHko zerrenda globala hartzen du kontuan, "Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna" izenekoa gehituz, eta Eusko Jaurlaritzaren ekimenez "Euskadi Basque Country 2030 Agendan" sartu da.

Aurkibidea

SARRERA

GJH-ETARAKO MARKOA TRESNA GISA

PLANTEAMENDUA

GJH-ETARAKO MARKOA ZERTARAKO ERABILI

MARKOA ETA DIAGNOSTIKOA EGITEKO TRESNA NOLA ERABILI

MARKOAREN GAKOAK

KUDEAKETA-ELEMENTUAK

ESTRATEGIA

BEZEROAK, PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK

PERTSONAK


GIZARTEA ETA INGURUMENA

BERRIKUNTZA

INPAKTUA – EMAITZAK

GJH BAKOITZEKO HELBURUEN ETA ADIERAZLEEN ADIBIDEAK

GLOSATEGIRAKO ETA WEB APLIKAZIORAKO ESTEKAK



Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Trantsizioko eta Agenda 2030eko Idazkaritza Nagusiak, EUSKALITen aholkularitzarekin, "Kudeaketa Aurreratuaren Eredua" garatzen izandako esperientziarekin eta Euskadiko Agenda 2030 Foroko Guneak nahiz EUSKALITen kolaboratzaile-sarea osatzen duten ehun bat erakunderen parte-hartzearekin, [Agenda 2030 enpresetan eta erakundeetan garatzeko gida](#) bat egitea bultzatu du.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/transicionsocial_agenda2030/eu_def/adjuntos/Guia-ODS-EUS.pdf

Gida honek mota guztietako enpresa eta erakundeei aukera ematen die 2030eko Agendarekiko konpromisoan hiru fasetan parte hartzeko:

- **Hurbiltze-fasea**, GJHein zerotik hasten diren enpresa edo erakundeentzat.
- **Hastapen-fasea**, Agenda 2030en oinarrizko ezagutza duten eta hura aplikatzen has-teko prest dauden erakundeentzat.
- **Sakontze-fasea**, ibilbideren bat duten eta aurrera egin nahi duten enpresa edo erakundeentzat.

Sakontze-fase horri ekiteko edukia eta metodologia ondorengo **Markoan** garatzen da, berariaz sortutako web-tresna baten bitartez:

<https://www.2030agenda-prest.euskadi.eus>



GJH-etarako markoa tresna gisa

GJHetarako Markoa, 2030 Agendarekiko eta Garapen Jasangarrirako Helburuekiko (GJH) konpromisoaren bidez garapen jasangarriaren aldeko apustua egin nahi duen edozein erakunderentzako **hausnarketarako, diagnostikorako eta hobekuntzarako tresna** gisa eskaintzen da.

Beraz, erakunde bakoitzak bere abagunetara, **interesetara eta beharretara egokitu behar** duen lan-tresna da. Eta marko zabal eta orokor gisa ulertu behar da edozein enpresa, entitate edo erakunderentzat.

Helburua, **gure kudeaketa-sistemak garapen jasangarriaren ikuspegitik GJHekin duen lerrokatze-maila aztertu ahal izateko metodoa** eskaintzea da. Abiapuntutzat hartzen da 2030 Agendaren aldeko apustua ez dela ekintza puntualak eta erakundearen jarduerarekin lotutako zeharkako ekintzak egitea, baizik eta erakunde baten kudeaketaren esparru guztietatik egin beharreko **gogoeta egituratua** behar dela.

GJHetarako markoa hainbat arlotako galderen inguruan egituratzen da, eta galde-
ra horiek kontuan hartu beharko lirateke **Garapen Jasangarrirako Helburuak gure kudeaketa-sistemaren funtsezko elementu gisa txertatzeko** orduan; benetako konpromisoa ez ezik, eraginkorra eta emaitzetara bideratua izatea ere bilatu beharko litzateke.



Planteamendua

GJHetarako Marko honen atzean dauden planteamenduaren gakoak hauek dira:

Kudeaketa Aurreratuaren Eredua (KAE):

LGakoa GJHak edozein tamaina eta sektoreko erakundeen eguneroko jardunean integratzea da. Horregatik, **GJHetarako Marko honek erreferentziatzat hartzen du** EUSKALITek jarduera eremu guztietako enpresen eta erakundeen esperientzian oinarrituta gauzatu duen "**Kudeaketa Aurreratuaren Eredua**". Eredu hori edozein erakunde kudeatzeko garrantzitsuak diren 6 elementuren inguruan egituratzen da: Estrategia, Bezeroak, Pertsonak, Gizartea eta Ingurumena, Berrikuntza eta Emaizak.

Hala ere, Marko hau Kudeaketa Aurreratuaren Ereduarekiko independentea da, eta ez da beharrezkoa haren berri izatea GJHen aurrean posizionamendua aztertzeko tresna behar bezala erabiltzeko. Hala ere, beren kudeaketa-dinamikak garatzeko erreferente gisa KAE erabiltzen duten erakundeek GJHetarako Markoan beren ereduarekin erabat lerrokatuta dagoen eta hobetzeko eraginkorra den tresna aurkituko dute.

Nazio Batuek proposatutako GJHen zerrenda ofizialak 17 helburu biltzen ditu guztira. Azkenaldian, hainbat ekimen daude 18. zenbakiko GJH txertatzea sustatzen dutenak, hainbat premisaren pean. Marko honek 18 GJHko zerrenda globala hartzen du kontuan, "Hizkuntza eta kultura-aniztasuna" izenekoa gehituz, eta Eusko Jaurlaritzaren ekimenez "Euskadi Basque Country 2030 Agendan" sartu da.

Helburua inpaktua lortzea:

Nazio Batuek Garapen Jasangarrirako Helburuak garatu izanak, 17 Helburuak eta horiei lotutako 169 jomugak definituz, inpaktua azpimarratzen du, emaitzak lortzeari dago-kionez. Hau da, **lehentasuna** 2030ean helburu horietara hurbiltzen lagunduko diguten **benetako aurrerapenak lortzea da.**

GJHetarako Markoak ikuspegi hori bera azpimarratzea bilatzen du. Kontua ez da soilik garapen jasangarriaren eta gizarte-erantzukizunaren balioekin bat datorren kudeaketa-jardunbidea sustatzea, **emaitzak lortzen modu eraginkorrean lagunduko duten eta erakundeei lehiakortasun jasangarriaren erreferentzia emango dieten kudeaketa-jardunbideak sustatzea** baizik.

Beraz, emaitzei begira, ez dugu soilik betetze-maila baloratuko, baita emaitzen benetako lorpena ere.

Jakina, erakunde baten berezko jarduerak eragin positiboa izan dezake 18 GJHetako eremuren batean (helburuak hedatzeak berak eragin positiboa izan dezake bere ingurunean). **GJHak lortzeko kanpo-inpaktua lortzea da balioa gehitzen duena**, eta ez hainbeste lorpen hori interesik gabekoa izatea edo erakundearen interesetatik bereizita egotea. Ingurunean duen benetako inpaktua da garrantzitsua, eta ez hainbeste motibazioa edo kausalitatea. Era berean, erakunde bakoitzak jarduera horietan egiten duen esfortzua bere gaitasunen eta lehentasunen arabera baloratu behar da beti.

Emaitzak:

Ilido beretik, beraz, ingurunean inpaktua izateko ikuspegi horrekin, GJHetarako Marko honek emaitza-maila bikoitza, eta, beraz, adierazle-maila bikoitza, planteatzen du:

Lehenik eta behin, **“inpaktuzko” helburuak eta adierazleak**: kanpotik jasotzen ari dena zehazten eta neurtzen dutenak. Inpaktu positiboa optimizatzeari edo inpaktu negatiboa minimizatzeari dagozkien azken lorpenak (adibidez, ingurumen-gaietan).

Eta baita **barne-jarduerarekin erlazionatutako helburuak eta adierazleak** ere; azken inpaktu horiek lortzeko erakundean bertan gauzatzen diren ekimen, ahalegin, proiektu edo ekintzak.

Kudeaketa sistema sendo batek helburuen eta adierazleen maila bikoitz hori hartu behar du kontuan; horrela, barneko konpromisoa eta ahalegina indartuko dira, horiek inspiratzen dituzten azken lorpenak identifikatuta.

GJH-etarako markoa zertarako erabili

Tresna hau, GJHekin benetan lerrokatzeko indartu behar diren kudeaketa-sistemako elementuak identifikatzeko laguntza gisa hartu behar da.

Beraz, tresna honetan ez da bilatu behar jardunbide egokien edo soluzio zehatzak ezartzeko aholkuen zerrendarik. Baina bai erakunde baten kudeaketaren hausnarketan kontuan hartu beharreko alderdi kritikoaren gida bat.

Marko honetara hurbiltzen den erakundeak honetarako tresna aurkituko du:

- **Lehentasunezko hobekuntza-eremuak identifikatzeko, garapen jasangarriaren aldeko apustuan aurrera egiteko.**
- **GJHek beren kudeaketa-sisteman duten eragina ulertzeko.**
- **Erakundea GJHen eta 2030 Agendaren aurrean aurrerapen-mailan kokatzeko.**

Gomendioa da tresna hau erakundearen kudeaketaz arduratzen diren pertsonen taldeak erabiltzea. Aldez aurretik GJHei eta garapen jasangarrirako 2030 Agendari buruz gutxienezko ezagutza izatea gomendatzen da. Horretarako, erreferentzia ugari daude, besteak beste:

Garapen Jasangarrirako Agenda - Garapen Jasangarria (un.org)

<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/development-agenda/>

Agenda 2030 - Eusko Jaurlaritza - Euskadi.eus

<https://www.euskadi.eus/eusko-jauraritza/-/2030-agenda/>

Agenda 2030 enpresetan eta erakundeetan garatzeko gida

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/transicionsocial_agenda2030/eu_def/adjuntos/Guia-ODS-EUS.pdf

Markoa eta diagnostikoa egiteko tresna nola erabili

Markoak kontuan hartu beharreko 6 elementuak ditu (ESTRATEGIA, BEZEROAK, PERTSONAK, GIZARTEA ETA INGURUMENA, BERRIKUNTZA ETA EMAITZAK), eta elementu bakoitzean zenbait galdera aurkezten dira, erakundeak egokiena iruditzen zaion sakontasun mailarekin hausnar dezan. Galderak erreferentzia zabala dira, baina EZ DIRA NAHITAEZ BETE BEHARREKO CHECK LIST BAT:

- Hausnartu modu egituratuan GJH-en eta erakundearen kudeaketa sistemaren arteko loturari buruz.
- Zehaztu zein den zure aurrerapen-maila kasu bakoitzean (0tik 3ra bitarteko eskalan).
- Identifikatu graduazio hori justifikatzen duten barne-erreferentziak.
- Ezarri kasu bakoitzean aurrerapen maila hobetzeko egin daitezkeen ekintzak.
- Ezarri lehenetsunak identifikatutako ekintzen artean eta ekintza plana sortu.

Markoan planteatutako galdera bakoitzaren analisiaren ondorioz, erakundeak barne-erreferentziak identifikatu beharko lituzke, aurrerapen-maila ezarri, eta, azkenik, hobetu daitezkeen arloak edo ekintzak zehaztu eta lehenetsi.

Marko honek kudeaketaren esparru guztiak bere gain hartzen dituela kontuan hartuta, erakundearen kudeaketaz arduratzen den pertsona taldeak betetzea gomendatzen da. Hainbat modutan egin daiteke, erakunde bakoitzaren lehenetsunen, beharren edo ezagutzaren arabera:

- Oinarrizko eran, galderak irakurriz eta aurrerapen mailaren posizionamenduaren bidez.
- Modu aurreratuan, hausnarketa sakonago baten bidez, hobekuntza-ekintza konkretuagoak eta hobekuntza-plan zehatzago bat definitzea ahalbidetuko duten ebidentziak eta adierazleak txertatuz.

Oso litekeena da parte hartzaile bakoitzak kudeaketa arlo batzuk besteak baino hobeto ezagutzea eta web-tresnan bere ideiak beste pertsona batzuenekin batera gehitzeko aukera izatea. Ondoren, egindako ekarpenak adostasun-bilera batean integratuko dira. Bilera horretan, ebidentziak adosteaz gain, hainbat gaitan izandako aurrerapen maila adostuko da, eta ekintza-plana eta haren lehenespena planteatuko dira.



Markoaren gakoak

GJHak enpresen eta erakundeen kudeaketan txertatzeko Markoa, horrelako tresna bat izan nahi du:

- **Erraza:** ez du eremu guztietan sakondu nahi (horretarako beste tresna batzuk daude), baizik eta **GJHek erakunde bakoitzaren kudeaketarekin duten loturari** buruzko hausnarketa arina eta egituratua ahalbidetzea.
- **Progresiboa: GJHekin lanean ibilbide luzea duten erakundeentzat**, garapen jasangarriko beste ikuspegi batzuekin, edo kudeaketan oso aurreratuak direnentzat baliagarria izateko pentsatuta dago; **baina baita, eta bereziki**, gero eta garrantzi handiagoa duten elementu horiek **aztertzen eta lantzen hasi nahi duen edozein erakunderentzat** ere.
- **Zeharkakoa:** Markoa **mota guztietako erakundeentzat** pentsatuta dago; handiak, txikiak, publikoak, pribatuak, edozein figura juridiko dutenak eta jarduera sektore guztietakoak. Diseinu horri esker, ikasteko moduko jardunbide egokiak eta erreferentziazko erakundeak identifikatu ahal izango dira.
- **Kudeagarria:** Marko honek aukera ematen du **erakunde bakoitzak bere lehentasunak identifikatzeko eta, gainera, bere aurrerapen erritmoa markatzeko**. Aurrerapen mailen sistemari esker, gainera, eremu bakoitzean egindako aurrerapena oso era bisualean ikusteko aukera ematen du.
- **Bateragarria:** Marko honen diseinuan **funtsezko helburu bat ispilu bat izatea da, edozein erakunderen aurrean koka daitekeena, eta bertan lanean ari den guztia sar dezake existitzen diren erreferentzia ugariekin**, batzuk sektore foku batekin, beste batzuk erakundeen tipologia juridiko batzuentzat, beste batzuk ziurtagiriekin lotuak, beste batzuk toki edo nazioarte mailakoak, beste batzuk araudi desberdinetan sartuak, etab.
- **Ekintzara bideratua:** eta kudeaketa-sisteman hobekuntzak sartzera, GJHak hobeto txertatzen laguntzeko.
- **Ez-lehiakorra:** Erakunde bakoitzaren azterketa bat da, bere testuinguruan, ez besteekin alderatuta.
- Elementu bakoitzean GJHen alderdirik garrantzitsuena kudeaketako Elementu bakoitzean zentratzeko aukera ematen duen azalpen laburra ematen da. Ondoren, erakundeak elementu bakoitzean duen posizionamendua aztertzeko zenbait galdera aurkezten dira.

- Aurrerapen **Maila**: posizionamendua 4 mailatan (0tik 3ra), erakundean jarduerak dauden ala ez, horien sistematikotasuna, eraginkortasuna edo heldutasuna kontuan hartuta.

AURRERAPEN MAILA

- 0. Ez.** Orain arte ez dago esperientziarik.
- 1. Noizean behin.** Esperientzia puntualen bat edo bakanen bat dago. Planifikatu gabe eta sistematikoki.
- 2. Bai, sistematikoki.** Erantzuna sistematikoa, planifikatua eta egituratua da.
- 3. Bai. Erabat garatua** eta kudeaketan integratua. Jarduera sistematikoa, planifikatua eta egituratua izateaz gain, gehitutako hobekuntzen ondorioz, praktika erreferentzia gisa hartzen da.

INPAKTUA – EMAITZA elementurako eta gainerako elementuen Kudeaketa Helburu eta Adierazleetarako, honako **aurrerapen-mailaren** eskala hau erabiltzen da:

- 0. Emaizik gabeko helburuak.**
- 1. Emaiz puntual (neuketa bat) edo aurrerapenik gabeko helburuak.**
- 2. Neurketa batean baino gehiagotan emaitza postiboa dituzten helburuak.**
- 3. Emaiz oso positiboak eta denboran iraunkorrak dituzten helburuak.**

Erreferentziak: ebaluazioa gertaera eta datu zehatzetan oinarritzen denez eta ez iritzi edo hautemate pertsonaletan, erreferentziak sartzea gomendatzen da, erakundea 1 baino gehiagoko aurrerapen mailan egonez gero.

BARNEKO-ERREFERENTZIAK (batez ere, puntuazioa > 1 bada)

Ebidentzia, erakundean garatu edo esperimentatu den (galdera bakoitzari dagokionez), eta aurrerapen-maila maila jakin batean kokatzera eramaten duen guztia da. Ez dira beti froga dokumentalak; hauek ere izan daitezke, adibidez:

DOKUMENTUAK

Prozesu, plan, prozedura, gida... motaren bat, izanez gero.

ADIBIDEAK

Aipa daitezkeen aplikazio zehatzak

OHIKO JARDUNBIDEAK

Dokumentatuta egon gabe ere, jarraibide edo sistematika jakin batzuk islatzen dituztenak.

NEURKETAK

Kasu bakoitzean aplikatzen diren adierazle posibleak, ebaluazioak, analisiak...



Kudeaketa- elementuak

ESTRATEGIA

Garapen jasangarriarekin eta GJHein konprometitutako erakunde batek, Garapen Jasangarrirako Helburuak ezagutzeko, horiek izan dezaketen inpaktua identifikatzea ahalbidetuko dion informazioa izateko, eta GJHein lerrokatutako helburuak formulatzeko eta erakunde osora zabaltzeko lan-prozesu edo dinamika egokiak izateko dinamikak eta tresnak izan behar ditu.

- 1.1 Ezagutzen al dira GJHak enpresan?** Jaso al da prestakuntzarik edo informatu al da erakundearen jakinaren gainean egon dadin?
- 1.2** Ba al dago erakundeak bere ingurunean duen **inpaktu** positiboari edo negatiboari, eta inpaktu horien zergatiari eta ondorioei buruzko **informaziorik eta kudeatzen al da?**
- 1.3** Erakundeak badu **zaintza-sistemaren** bat garapen jasangarriaren arloko egungo eta etorkizuneko erronkak identifikatzeko?
- 1.4 Garapen jasangarria** erakundearen **elementu garrantzitsu gisa** txertatzen al da? (bere asmoan, Ikuspegian, Balioetan, helburu estrategikoetan...).
- 1.5** Erakundeak **identifikatuta al ditu jardun nahi duen lehentasunezko GJHak**, eta ezartzen al ditu horiei lotutako helburuak eta ekintza-planak?
- 1.6 Lehentasunezko GJHak** identifikatuta badituzu, markatu zein diren.
- 1.7 Garapen jasangarriaren helburuak lotuta al daude erakundearen beste politika batzuekin?** (adibidez, ingurumenekoekin, inbertsioekin, giza baliabideekin...).
- 1.8** Ba al dago GJHei lotutako helburuak **ekintza-planetan** bihurtzeko sistematarik?
- 1.9 Aliantzei** dagokienez: garapen jasangarriak eta GJHei zeregin garrantzitsuren bat al dute helburu eta ekimen bateratuak ezartzeko orduan?
- 1.10** Erakundeak barne hartzen al ditu **kanpoko interes-taldeak** (adibidez: bezeroak, hornitzaileak...) garapen jasangarriaren inguruko hausnarketan eta konpromisoan?
- 1.11** Ba al dago GJHei edo garapen jasangarriari lotutako helburuen **jarraipena** egiteko eta horien **betetzea eta eguneratzea** baloratzeko sistematarik?

- 1.12** Ezarrita al dauka erakundeak GJH bati edo batzuei lotutako “**inpaktu helbururik**”?
- 1.13** GJHekin lotutako “inpaktu-helburuez” gain, erakundeak definituta al dauka espero den azken emaitzaren bultzatzaile izan daitezkeen “**kudeaketa-helburuak**”?

BEZEROAK, PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK

Garapen jasangarriarekin konprometitutako erakunde aurreratu batek produktuen eta zerbitzuen diseinuaren eragina hartzen du kontuan, bai eta horien merkaturatzearena eta prestazioarena ere; bai ingurumen-inpaktuari dagokionez (materialak, energia-hornidurak, kontsumoak, bizi-zikloaren kudeaketa... behar bezala hautatuta), bai gizarte-inpaktuari egiten dion ekarpenari dagokionez, komunitateari onurak emanez, bai berrikuntza gisa, bai bizi-baldintza edo lan-baldintza duinetarako sarbide gisa...

- 2.1** Ezagutzen al ditugu gure bezeroen (egungoak edo izan daitezkeenak) **helburuak, eskakizunak, itxaropenak, baldintzatzaileak**..., garapen jasangarriaren, GJHekiko konpromisoaren, ingurumenarekiko konpromisoaren... aurrean?
- 2.2** Ezarri al dugu **bezeroarekin** inolako **lankidetzarik** garapen jasangarriaren arloan, dela ohiko harreman komertzialaren bidez, dela ekimen bateratuen edo aliantzen bidez?
- 2.3** Ba al dugu **bezeroaren pertzepzioa** ezagutzeko garapen jasangarriaren alde egiten dugun ahaleginari buruzko informaziorik?
- 2.4** **Gure produktuen eta zerbitzuen diseinuan**, kontuan hartzen al ditugu ingurumen eta gizarte-jasangarritasuneko irizpideak, produktuaren bizi-zikloa, ekonomia zirkularra, segurtasuna, kolektibo zaurgarrietan eragina izatea, ...?
- 2.5** Gure produktuek edo zerbitzuek **eragin positiboa al dute gizarte-ingurunean**, egoera ahulean dauden kolektiboetan...?
- 2.6** Aprobetxatzen al ditugu merkaturatzeko, saltzeko, merkatuarekin komunikatzeko... ditugun bideak, garapen jasangarriarekin erlazionatutako **balioak eta konpromisoak indartzeko eta transmititzeko**?
- 2.7** Ingurumenaren optimizazioa aldagai gisa txertatzen al dugu **hornitzaileak** kontratatzeke, hornidurak erosteko, azpikontratazioei buruz erabakitzeke eta abarrerako?
- 2.8** Dimentsio soziala aldagai gisa txertatzen al dugu **hornitzaileak** kontratatzeke, hornidurak erosteko, azpikontratazioei buruz erabakitzeke eta abarrerako?
- 2.9** Erakundearen **kate logistikoa**n kontuan hartzen al dira hainbat alderdi, hala nola karbono-aztarna, aztarna ekologikoa, hondakinen sorrera, emisioak...?

2.10 Baliabideen kudeaketan (ekonomikoak, materialak, hornidurak...): GJHei lotutako lehentasunak eta ekimenak gaineratzen al dira?

2.11 Berariazko kudeaketa-helburuak daude, bezeroentzako produktuak eta zerbitzuak garatzeko prozesuen kudeaketarekin eta azken emaitzak edo GJHetan inpaktuak sustatzeko barne-ahaleginarekin lotutakoak?

2.12 Kudeaketa-helburu horiek **berariazko adierazleak** dituzte, **helmugak** ezartzeko eta horien jarraipena egiteko aukera ematen dutenak?

PERTSONAK

Garapen jasangarriaren eta GJHak beren kudeaketa-jardunbideetan integratzearen aldeko apustua egiten duen erakundeak aktibo nagusia erakundeko pertsonak dira eta pertsonak garapen jasangarriaren aldeko eragile aktibo izatera bideratutako ekimenak hartzen dira. Gainera, berdintasun-politiken sustatzailea da, eta bere ingurunean lan-harreman egokiak, osasunaren aldeko jardunbideak... sustatzen laguntzen du, eta, kontratazioaren, praktiken edo beste modu batzuen bidez, zaugarritasun-egoeran dauden pertsonak barne hartzen eta enplegagarritasuna, gizarteratzea eta kalitatezko hezkuntza sustatzen laguntzen du.

3.1 ¿Erakundeak ba al du irizpide eta praktikarik **desberdintasun edo zaugarritasun-egoeretan dauden kolektiboetako** pertsonak sartzeko?

3.2 Erakundeak ba al du **genero-berdintasuna, kultura, hizkuntza edo beste edozein motatako aniztasuna** sustatzen duen ekintzarik, lege-esparrutik haratago?

3.3 Erakundeak egiten al ditu erakundeko **pertsonen osasuna zaintzeko, sustatzeko eta artatzeko** jarduerak lan-ingurunean eta lan-ingurunetik kanpo ("enpresa osasungarria")?

3.4 Erakundeak garatzen al du hizkuntza gutxituak dituzten bere inguruneko kolektiboek **hizkuntza-eskubideak babesteko** edo bermatzeko politikarik edo ekimenik?

3.5 Ebaluatzen al da **pertsonen pertzepzioa** erakundeak garapen jasangarriarekin eta GJHein duen konpromisoari dagokionez?

3.6 Erakundeak sustatzen al du pertsonak garapen jasangarriaren arloan duten **prestakuntza eta gaikuntza**?

3.7 Ingurune kaltebera edo desberdintasunezkoetatik datozen pertsonak gaitzen laguntzen ari al gara, haien garapen pertsonal eta profesionalerako gaitasunak indartuz?

- 3.8** Erakundeko **pertsonak partaide egiten al ditugu** garapen jasangarriaren arloko estrategia, politika eta konpromisoetan, haien ekarpena eta parte-hartzea sustatuz?
- 3.9** Laguntza ematen al zaie erakundeko pertsonari beraien **gizarte-konpromisoko ekimenetan** (laguntza ekonomikoa, logistikoa, hedapeneko...)?
- 3.10** Erakundeko **persona guztiak partekatzen duten kulturak** islatzen al du garapen jasangarriaren printzipioekiko konpromisoa?
- 3.11** **Erakundeko pertsonak aintzat hartzen al dira** garapen iraunkorraren esparruan dituzten ekimen eta/edo ekarpen bereziengatik?
- 3.12** **Lidergoa duten pertsonen parte-hartze aktiboa** sustatzen al dugu garapen jasangarriaren arloko proiektuetan edo ekimenetan, erakundearen barruan zein ingurunean?
- 3.13** **Berriarazko kudeaketa-helburuak** daude, pertsonen kudeaketarekin eta GJHen azken emaitzak edo inpaktuak sustatzeko barne-ahaleginarekin lotutakoak?
- 3.14** Kudeaketa-helburu horiek **berriarazko adierazleak** dituzte, **xedeak** ezartzeko eta horien jarraipena egiteko aukera ematen dutenak?

GIZARTEA ETA INGURUMENA

Gizarte-ingurunearekiko konpromisoak bereizi egiten ditu kudeaketa aurreratua duten eta garapen jasangarriaren eta GJHen aldeko apustua egiten duten erakundeak. Konpromiso horren ondorioz, inpaktuak bilatzen dira, haien ohiko jardunetik abiatuta edo ad-hoc lankidetzetan oinarrituta, ingurunean hobekuntza ekar dezaketenak. Bere jardueraren inpaktu positiboan optimizaziotik abiatuta, eta bere funtzionamenduaren berezko testuingurutik haragoko ingurune, erakunde eta kolektiboekin loturak izaten lagunduko duen ekintza proaktiboa bilatuz.

- 4.1** Erakundeak **identifikatuta al du bere eraginpeko gizarte-ingurunea, globala edo/eta tokikoa**, eta identifikatuta al ditu gizartearen eta garapen jasangarriaren ikuspegitik dauden beharrak?
- 4.2** Erakundeak ba al du gizartean eragin positiboa sortzen lagunduko duen **proiekturik beste** eragile, organizazio eta **instituzio batzuekin lankidetzan**?
- 4.3** Erakundeak identifikatuta al ditu garapen jasangarriaren alde egiten duen apustuan parte hartzen duten talde edo erakundeak, eta haien laguntza al du **politiken eta konpromisoen formulaziorako eta zehaztapenerako**?

- 4.4** Erakundeak ba al du bere garapen jasangarriaren aldeko apustuaren kanporako **komunikazio-politkarik?**
- 4.5** Erakundeak erabiltzen al du akreditatutako hirugarrenek garapen jasangarriaren alde egindako esfortzuaren **ziurtagiririk edo homologaziorik?**
- 4.6** Erakundeak garapen jasangarriaren eta GJHen aldeko apustuan **laguntzen dien erakundeen lana** balioesten al du **jende aurrean?**
- 4.7** Erakundeak parte-hartze aktiboa al du (sustatzaile gisa edo partaide gisa) **GJHak ezagutzearen eta sustatzearen** eta horiek lortzeko lanaren alde **elkarrekin, organismoekin edo instituzioekin egiten diren ekimenetan?**
- 4.8** Ba al dugu **kontsumo arduratsura, “erosketa berdera” edo/eta lehengaien eta materialen kontsumoaren optimizaziora eta eraginkortasunera** bideratutako barne politika edo jardunbiderik?
- 4.9** Martxan al ditugu **energia-eraginkortasuna** ziurtatzeko eta energia berriztagarriak erabiltzeko politika edo jardunbiderik?
- 4.10** Modu egokian kudeatzen al ditugu gure zerbitzuak ematean edo/eta gure produktuak fabrikatzean sortutako **hondakinak**, haien balorizazioa optimizatuz?
- 4.11** Aztertu al dugu gure eragina **isurietan edo aztarna ekologikoan**, eta horiek minimizatzeko neurriak abiarazi al ditugu?
- 4.12** Ba al dago **berriarazko kudeaketa-helbururik** ingurumen-kudeaketarekin eta gizartearekiko harremanarekin lotuta, eta barne-ahaleginik GJHetan azken emaitzak edo inpaktuak sustatzeko?
- 4.13** Kudeaketa-helburu horiek **berriarazko adierazleak** dituzte, **helmugak** ezartzeko eta horien jarraipena egiteko aukera ematen dutenak.

B ERRIKUNTZA

Kudeaketa aurreratua duen edozein erakundetan berrikuntza funtsezko elementutzat hartuta, garapen jasangarriaren aldeko apustua egiten dutenak gai dira beren ahalegin berritzaileak erakundeaz haraindiko inpaktu global bat sortzera bideratzeko; asmoa duen berrikuntzarantz bideratuz, ezagutza kolektiboa sortzen lagunduz, ingurune jasangarriagorako ekarpena eginez, desberdintasun edo zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboetan ezagutza berriak eskuratzea bultzatuz, etab.

- 5.1** Erakundeak garapen jasangarriaren eta GJHen alde egindako apustuarekin erlazionatutako aldagaiak kontuan hartzen al dira **berrikuntzarako edo hobekuntzarako aukerak identifikatzeko** orduan?
- 5.2** Erakundeak lehentasuna ematen al die **garapen iraunkorrari edo GJHei gehien laguntzen dioten berrikuntza-proiektuei**?
- 5.3** Erakundeak ezartzen al du, bere **berrikuntza-proiektuetarako, inpaktu-helbururik GJHetan** eta erakundeak garapen iraunkorraren alde egiten duen apustuan?
- 5.4** Ba al dago **lankidetzaz ildorik gizarte eremuko erakunde, instituzio edo entitateekin**, berrikuntza irekiko ikuspegia duten proiektuetan, erakundearen gizarte-konpromisoaren sustapenean?
- 5.5** Erakundea irekita al dago, era proaktiboan, **bere ingurunea entzutera**, gizartearen eragina duten berrikuntza proiektuetan laguntzeko?
- 5.6** Erakundeak kontuan hartzen al ditu garapen iraunkorra eta GJHak **berritzeko abian jarritako barneko lankidetzaz-inguruneetan**?
- 5.7** Erakundeak **partekatzen al ditu garapen jasangarriko praktika onenak** barneko talde, arlo, sail eta abarren artean?
- 5.8** Erakundea **teknologia edo ezagutza transferentzia errazten ari al da gizarte-ingurunearen eta garapen jasangarriaren alde**, egiten duen berrikuntzarako jardueratik abiatuta?
- 5.9** Erakundeak erabiltzen al du **teknologia** (bere aldaera guztietan) gizartearen, ingurunearen edo ingurumenean inpaktu positiboagoa lortzeko?
- 5.10 Kudeaketa-helburu espezifikoak** al daude, berrikuntzaren kudeaketarekin eta GJHetan azken emaitzak edo inpaktuak sustatzeko barne ahaleginarekin lotutakoak?
- 5.11** Kudeaketa helburu horiek **berriarazko adierazleak** dituzte, **helmugak** ezartzeko eta horien jarraipena egiteko aukera ematen dutenak?

COMPLETAR EL AUTODIAGNÓSTICO: Haz clic en el botón para escribir las referencias internas o valorar el grado de avance en cada una de las preguntas.

CUMPLIMENTADO: %17.6 (12/68)
Valoraciones pendientes: 57



DESCARGAR AUTOEVALUACIÓN

ESTRATEGIA **CLIENTES** **PERSONAS** **SOCIEDAD y MEDIO AMBIENTE** **INNOVACIÓN** **IMPACTO-RESULTADOS**

Una organización comprometida con el desarrollo sostenible y los ODS debe contar con dinámicas y herramientas que le permitan conocer los Objetivos de Desarrollo Sostenible, contar con información que le posibilite identificar su posible impacto; así como contar con procesos o dinámicas de trabajo adecuadas para formular objetivos alineados con los ODS y desplegarlos al conjunto de la organización.

NIVELES DE AVANCE EN LA GESTIÓN						
0 - No. No hay ninguna experiencia hasta la fecha.	1 - De forma puntual. Hay alguna experiencia puntual o aislada. De forma no planificada ni sistemática.		2 - Si. De forma sistemática. Se da respuesta de una forma sistemática, planificada y estructurada.		3 - Si. Plenamente desarrollado e integrado en la gestión. Además de ser una actuación sistemática, planificada y estructurada, las mejoras incorporadas hacen que la práctica sea considerada una referencia.	
PREGUNTAS A REFLEXIONAR Reflexionar sobre la existencia de evidencias y posibles acciones de futuro. Niveles: 0=No; 1=Puntual; 2= Sistemático; 3=Muy desarrollado	0	1	2	3	REFERENCIAS INTERNAS (Preferentemente en caso de puntuación > 1) Prácticas habituales: sistemáticas no documentadas Ejemplos: aplicaciones concretas Documentos: procesos, planes, procedimientos, guías Mediciones: indicadores, evaluaciones, análisis, ...	POSIBLES ACCIONES A FUTURO Indicar posibles iniciativas que se pudieran poner en marcha para avanzar en el ámbito de cada pregunta. VERDE/ROJO = Pasado / no pasado al Plan de Mejora / <input checked="" type="checkbox"/> Reescribir <input type="checkbox"/> Eliminar
1. ¿Se conocen en la organización los ODS? ¿Se dispone de información o se ha recibido formación para su conocimiento?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>	+ Nueva referencia	1. acción 1 <input checked="" type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> + Nueva acción
2. ¿Existe información y se gestiona sobre el impacto positivo o negativo de la organización en su entorno y sobre las causas y efectos de dichos impactos?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>	+ Nueva referencia	1. acción 2 <input checked="" type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> + Nueva acción
3. ¿Cuenta la organización con algún sistema de vigilancia que permita identificar los retos actuales y futuros en materia de desarrollo sostenible?	<input type="radio"/>	<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	+ Nueva referencia	+ Nueva acción
4. ¿Se incorpora el desarrollo sostenible como elemento relevante de la organización? (en su Propósito, Misión, Visión, Valores, objetivos estratégicos?)	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input checked="" type="radio"/>	+ Nueva referencia	+ Nueva acción

Web tresnaren irudia

Garapen jasangarriaren aldeko apustua egiten duen erakunde batek bere ingurunean benetako inpaktuak sortzeko konpromisoa hartu behar du, bere kudeaketa-jardunbideetatik haratago. Horregatik, erakunde aurreratu batek bere gizarte ekarpenaren inpaktua definitzen, kontrolatzen eta bilatzen du, lortu nahi diren azken emaitzak definituz eta horiek bultzatuko dituzten helburuak eta barne ekimenak jarriz. Helburu horiek guztiek lotutako adierazleak dituzte, haien bilakaera eta lorpen-maila baloratu ahal izateko.

GJHetarako Marko honek emaitzen eta, beraz, adierazleen maila bikoitza planteatzen du:

- **“Eraginaren” helburuak eta adierazleak:** kanpotik benetan ematen dena zehazten eta neurtzen dutenak. Azken lorpenak, inpaktu positiboaren optimizazioari edo inpaktu negatiboaren minimizazioari dagokionez (adibidez, ingurumen gaietan).
- Baita **barne-jarduerarekin lotutako helburuak eta adierazleak** ere; azken inpaktu horiek lortzeko erakundearen bertan garatzen diren ekimenak, ahaleginak, proiektuak edo ekintzak. Helburu eta adierazle horiei erreferentzia egin zaie aurreko elementu bakoitzaren amaieran, eta kolore hondoaren gainean elementu bakoitzaren azken bi alderdiak nabarmendu dira.

NOLA BETE INPAKTU/EMAITZAK ATALA

- Erakundeak **ezarritako helburuak sartzea** (halakorik badago). Helburuak (erakundeek lortu nahi dituzten xedeak edo emaitzak) plan estrategikotik, agintetaulatik, kudeaketa-planetik, plan operatibotik, prozesutik, lantaldetik, proiektuaren jarraipenetik... etorri beharko lirateke.
- Helburu bakoitzari **lotutako GJHak adierazi**.
- Adierazi helburu bakoitzari **lotutako adierazlerik garrantzitsuenak**.
- Ikus adibideen erlaitza.

ESTRATEGIA	CLIENTES	PERSONAS	SOCIEDAD y MEDIO AMBIENTE	INNOVACIÓN	IMPACTO-RESULTADOS
------------	----------	----------	---------------------------	------------	--------------------

Una organización que apuesta por el desarrollo sostenible debe comprometerse en la generación de impactos reales en su entorno, más allá de sus prácticas de gestión. Por ello, una organización avanzada define, controla y persigue el impacto de su contribución social definiendo los resultados finales pretendidos y poniendo objetivos e iniciativas internas que los impulsen. Todos estos objetivos tienen sus indicadores asociados, de forma que se pueda valorar su evolución y nivel de consecución.

OBJETIVOS E INDICADORES DE GESTIÓN Los objetivos e indicadores "de gestión" intima son las iniciativas, esfuerzos, proyectos o acciones que se desarrollan en la propia organización para conseguir esos impactos finales. Ver ejemplos de objetivos de Gestión Ver ejemplos de indicadores de Gestión	OBJETIVOS E INDICADORES DE IMPACTO Los objetivos e indicadores "de impacto" son aquellos que determinan y miden lo que efectivamente se está aportando externamente. Los logros finales en cuanto a la optimización del impacto positivo o minimización del impacto negativo (por ejemplo, en cuestiones medioambientales). Ver ejemplos de objetivos de Impacto Ver ejemplos de indicadores de Impacto	CÓMO CUMPLIMENTAR EL APARTADO DE IMPACTO/RESULTADOS *Incluir los objetivos marcados por la organización (si se disponen). Los objetivos (las finalidades o resultados que persiguen las organizaciones) deberían provenir de Plan estratégico, cuadro de mando, plan de gestión, plan operativo, de proceso, de equipo, de seguimiento de proyecto... *Indicar ellos ODS vinculados a cada Objetivo. * Señalar ellos indicadores más relevantes asociados a cada Objetivo
--	---	---

ODS VINCULADO	OBJETIVO	Tipo	INDICADOR	GRADO DE AVANCE DE LOS OBJETIVOS			
				0 - Objetivos sin resultados	1 - Objetivos con resultados puntuales (una medición) o sin avances.	2 - Objetivos con resultados en más de una medición.	3 - Objetivos con resultados muy positivos y sostenidos en el tiempo.
2.Hambre cero 3.Salud y bienestar	objetivo 1	IMPACTO	indicador 1 % acciones en marcha Tn CO2 compensadas € redistribuidos	0	1	2	3
1.Fin de la pobreza 2.Hambre cero	objeto 2	GESTIÓN	Nº Personas implicadas Horas invertidas Superficie virgen no ocupada	0	1	2	3

OPCIÓN 1: ESCRIBIR OBJETIVO YA EXISTENTE

OPCIÓN 2: Seleccionar objetivo entre estos ejemplos

ODS VINCULADO

1.Fin de la pobreza 2.Hambre cero 3.Salud y bienestar 4.Educación de calidad 5.Igualdad de género 6.Agua limpia y saneamiento 7.Energía asequible y no contaminante 8.Trabajo decente y crecimiento económico 9.Industria, innovación e infraestructuras 10.Reducción de las desigualdades 11.Ciudades y comunidades sostenibles 12.Producción y consumo responsables 13.Acción por el clima 14.Vida submarina 15.Vida de ecosistemas terrestres 16.Paz, justicia e instituciones sólidas 17.Alianzas para lograr los objetivos 18.Diversidad lingüística y cultural

OPCIÓN 1: ESCRIBIR INDICADOR YA EXISTENTE

OPCIÓN 2: Seleccionar indicador entre estos ejemplos

GRADO DE AVANCE DE LOS OBJETIVOS

0 - Objetivo sin avance. Sin resultados o avance en las últimas mediciones.
 1 - Objetivo estable. Sin avances, pero con resultados.
 2 - Objetivo con mejora de resultados en las últimas mediciones.
 3 - Objetivo con resultados de mejora muy positivos en las últimas mediciones.

Indicar posibles iniciativas que se pudieran poner en marcha para avanzar en el ámbito de cada pregunta.

Guardar

Web tresnaren irudia



Web tresnaren irudia. Elementu bakoitzaren aurrerapen maila



GJH bakoitzeko helburuen eta adierazleen adibiDEAK

GJHetarako Marko hau erabiltzen duten erakundeek aurrerapena errazteko, jarraian, kontuan har daitezkeen helburuen eta adierazleen zerrenda bat proposatzen da, GJH batekin edo batzuekin izan dezaketen korrelazioa adierazita (*Korrelazio taula eskura dago ebaluaziorako web tresnan*)

Inola ere ez da nahitaez bete beharreko helburu eta adierazleen zerrenda bat. Jakina, adibide horietako batzuk baino ez dira izango baliagarriak erakunde jakin baterako, eta, gainera, hemen jasota ez dauden beste aukera asko egongo dira.

INPAKTUZKOAK

HELBURUA	ADIERAZLEA
Pobreziaren eremuetan enpleguaren sorrera sustatzea.	Sortutako enplegu kopurua
Elikadura-baliabideak eskuratzen laguntzea.	Kolektibo/pertsona onuradun kopurua
Gertakariak eta istripuak murriztea.	Gertakari (edo istripu) kopurua
Praktiketako pertsonak sartzea.	Praktiketako pertsona kopurua
Zuzendaritza-mailetan emakumeak sar daitezzen bultzatzea.	Zuzendaritza-postuetan dauden emakumeen %
Neska eta emakume gazteen bokazio teknikoa sustatzea.	Ekitaldi kopurua/bertaratutako kopurua
Beste enpresa batzuk berdintasunaren alde trakzionatzen laguntzea.	Enpresa interesdun kopurua/parte-hartzaile kopurua/lankidetzakopurua
Ur-baliabideen erabilera minimizatzea.	Ur-baliabideen kontsumoaren murrizketaren %
Energia-kontsumoa murriztea.	Kw-ren kontsumoaren murrizketaren %. CO2 isurien murrizketaren %
Iturri berriztagarrien energia-kontsumoa handitzea.	Iturri berriztagarrietatik datorren energia-kontsumoaren %
Iraupen luzeko langabeei edo/eta x urtetik gorako lan-aukerak ematea.	Kontratututako langabe kopurua. Iraupen luzeko langabeziaren murrizketaren %
Ingurumen-jasangarritasunean inpaktua sortzea berrikuntza-proiektuen bidez.	Berrikuntza aplikatzearen ondoriozko CO2 murrizketaren %

HELBURUA	ADIERAZLEA
Ekonomia zirkularra bultzatzea, elikagai-azpiproduktuetatik eratorritako produktu berriak sortuz.	Produktu berri gisa aprobetxatutako elikadurra-hondakinen tn
Herritarren osasun orokorra hobetzea, ikerketa-proiektuak garatuz eta lankidetzan arituz.	Kolektibo edo pertsona onuradun kopurua
Desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzen laguntzea.	Kontratututako desgaitu kopurua / %
Bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboetako pertsonen elkarrekintzan laguntzea.	Bazterketa-arriskuan dauden kolektiboetatik datozen kontratatutako pertsona kopurua / %
Kultura-ondarea babesten laguntzea.	Lagundutako kultura-erakunde kopurua
Sortutako hondakinak murriztea.	Hondakinen tn
Hondakin ez-birziklagarrien sorrera murriztea.	Hondakin ez-birziklagarrien tn eta %
Elikagaien xahutzea murriztea.	Soberan dagoen elikagaiaren tn/%. Soberan dagoen elikagaiaren aprobetxamenduaren onuradun diren erakunde/pertsona kopurua
Garraioak/desplazamenduek eragindako CO2 isuriak murriztea.	Sortutako CO2 isurien tn
Itsasorako isurketak murriztea.	Isurketen murrizketaren %
Baso-azaleraren hazkundera sustatzea.	Baso-masaren hazkunderaren %
Iruzuraren aurkako jardunbideen garapena sustatzea.	Iruzuraren aurkako jardunbideak dituzten bezero/hornitzaile/aliatu kopurua
Erakundeak GJHekiko konpromisoan txerta daitezela sustatzea.	GJHekiko konpromisoa duten inguruko erakundeen %

BARNE KUDEAKETAKOAK

HELBURUA	ADIERAZLEA
Pobrezia eremuetan kontratazioa sustatzea.	Tokiko-erakundeekin egindako akordio kopurua
Sare logistiko propioak aprobetxatzea elikagaien hornidura sustatzeko.	Akordio kopurua
Ekipamenduen/makinen arriskugarritasuna murriztea.	Egindako hobekuntza/aldaketa kopurua
Segurtasun-prestakuntza indartzea.	Ordu kopurua/ikastaro kopurua/prestatutako pertsonen %
Hezkuntza-erakundeekin lankidetzahitzarmenak mantentzea/areagotzea.	Indarrean dauden hitzarmen kopurua
Tutoretza-plana betetzen dela ziurtatzea.	Betetze-maila
Genero-berdintasuna sustatzen duten erakunde edo programekin lankidetzak indartzea.	Lankidetzak kopurua
Berdintasunean aurrerapenak lortzeko barne-prestakuntza sustatzea.	Gaitutako persona kopurua eta %
Berdintasunezko gaiak lantzen dituzten sareetan presentzia handitzea.	Akordio kopurua/ekitaldi kopurua

HELBURUA	ADIERAZLEA
Hobekuntzak sartzea, ballabide hidrikoetan aurrezteko.	Ezarritako hobekuntza kopurua
Energia aurrezteko jardunbide egokien barne-hedapena indartzea.	Ekintza kopurua/ordu kopurua/pertsonen %
Instalazioak energia-iturri berriztagarri berrietara egokitzea lortzea.	Ordezkatutako ekipamenduen %
Enplegua sustatzeko erakundeekin harremanetan egotea.	Akordio kopurua
Berrikuntzak garatzeko proiektu/lankidetzak gehiago abiaraztea.	Proiektu edo lankidetzak kopurua
Sortutako ezagutza zabaltzeko jardunaldi/azoka/kongresuetan parte-hartze handiagoa izatea.	Jardunaldi... kopurua
Etengabeko harremana izatea inklusioaren alde lan egiten duten erakundeekin.	Akordio kopurua / Lankidetzak kopurua
Desgaitasunen bat duten pertsonak hartzeko barne-egokitzapena erraztea.	Prestatutako pertsona kopurua. Egokitutako lanpostuen %
Tokiko kultur erakundeekiko lankidetzak sustatzea.	Akordio kopurua
Materialen berrerabilera handitzea.	Berrerabilitako material kopurua / tn / %
Osagai kaltegarrien ordezkapenean aurrera egitea.	Osagai kaltegarriak ezabatzeko hobekuntza edo berrikuntza proiektu kopurua.
Soberan dagoen elikagaia aprobetxatzeko/ezabatzeko neurriak sartzea.	Ordezkatutako osagai kopurua / %.
Partekatutako ibilgailuen erabilera handitzea.	Ezarritako neurrien kopurua
Ibilgailu elektrikoaren erabilerarantz aurrera egitea.	Banakako bidaien murrizketaren %. Ibilgailu partekatzen duten pertsonen %
Hurbileko hornitzaileei egindako erosketak handitzea.	Ibilgailu elektrikoaren %. Ibilgailu elektrikoarekin egindako kilometroen %
Egiteko moduetan hobekuntzak egitea, itsasorako isurketak saihesteko.	< x km-ko hornitzaileen %. Hornitzaileen garraio-kilometroaren murrizketaren %
Basogintzaren aldeko ekimenak sustatzea.	Ekimen kopurua / Landatutako zuhaitz kopurua
luzurraren aurkako ekintzak sustatzen dituzten ekimenetan parte hartzea sustatzea.	Ekimen kopurua
GJHei buruzko ekintza-proposamenak egitea hornitzaileei/aliatuei.	Kontaktatutako hornitzaile/aliatu kopurua
GJHen alde sareetan era aktiboan parte hartzea.	Sare kopurua/ekimen kopurua



Glosategirako eta web aplikaziorako estekak

GLOSATEGIA:

<https://www.2030agendahiztegia.eus/>

WEB APLIKAZIOA:

<https://www.2030agenda-prest.euskadi.eus/>



GJHak enpresen
eta erakundeen
kudeaketan
txertatzeko
markoa